

“Beren egunerokotasuna Espainia hustuan bizi dutenen zailtasunak eta oztopoak helarazi behar zaizkio gizarteari”

- **“Zehatz-mehatz dakigu zer gertatzen zaien adinekoei, gizarte-zailtasunean dauden edo genero-indarkeria pairatzen duten emakumeei, enplegurik ez duten pertsoneri, eskola-adinean dauden seme-alabak dituzten familiei edo aukerarik ez duten gazteei” azaldu du Javier Senent Gurutze Gorriaren presidentek, Espainia hustuaren ahotsak izeneko ekitaldiaren aurkezpenean.**
- **Nazional lurraldearen % 53an biztanleriaren % 5 soilik bizi da, eta dentsitateak 12,5 biztanletik beherakoak dira kilometro karratu bakoitzeko.**
- **Javier Senent-ekin batera egon ziren: Juana López, Despopulazioaren aurkako Politiken zuzendari nagusia; Carlos Daniel Casares, Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioaren idazkari nagusia; Carmen Morenés, Telefónica Fundazioaren zuzendari nagusia; eta Juan Manuel Serrano, Correos erakundearen presidentea. Mahaia Marta Solano kazetariak moderatu zuen.**

2021eko irailaren 29a. “Gurutze Gorriaren boluntarioek eta langileek hurbiletik ezagutzen dituzte Espainia hustuan bizi diren pertsona kalteberenek beren egunerokotasunean izaten dituzten zailtasunak eta oztopoak. Gure jarduera hainbat esku-hartze arlotan gauzatzen da, eta zehatz-mehatz dakigu zer gertatzen zaien adinekoei, gizarte-zailtasunean dauden edo genero-indarkeria pairatzen duten emakumeei, enplegurik ez duten pertsoneri, eskola-adinean dauden seme-alabak dituzten familiei eta aukerarik ez duten gazteei; horregatik, uste dugu garrantzitsua dela gizarte osoari hori jakinaraztea”. Horrela hasi du, gaur goizean, Javier Senent Gurutze Gorriaren presidentek Espainia Hustuaren Ahotsak izeneko ekitaldiaren aurkezpena, Espainia hustuaren testuinguruko gizarte-kalteberatasuna txostena ezagutzera emateko esparru gisa erabili dena.

Datuak adierazgarriak dira: Espainiako lurraldearen % 53an biztanleriaren % 5 soilik bizi da eta dentsitatea 12,5 biztanletik beherakoa da kilometro karratu bakoitzeko; beraz, azalera hustu gehien duen herrialdea gara Europar Batasunaren hegoaldean. Eta prozesuak bere horretan jarraitzen du: azken urtean, 36 probintziak galdu dute biztanleria erregresio demografikoaren dinamikaren ondorioz, eta dinamika horrek kalte handia egiten jarraitzen du landa-eremuetan batez ere.

Azterlanak biztanleria oso urria den eskualdeetako errealitatea du aztergai. "Espainia Hustuaren eremuetako biztanleriaren etengabeko zahartzea eta maskulinizazioa nabarmendu nahi dugu. Errealitate gordinetako bat zera da, nahi ez den bakardadea, eta adinekoak ez ezik, bakarrik bizi diren gizonak ere hartzen ditu eraginpean. Gainera, oinarritzko zerbitzurik eta azpiegiturarik (eskolak, osasun-zentroak, garraio publikoa...) ez izateak edo desagertzeak kezkatzen gaitu, baita eremu horietako biztanleek arreta medikoa, batez ere espezializatua, jasotzeko edo beren seme-alabak ikastetxeetara eramateko bidaia luzeak egin behar izateak ere", azaldu du Javier Senent-ek, eta hau gehitu du: "Artatzen ditugun pertsona askok ez dute gaitasun digitalik. Eta konektibitate digitalik ez izateak ondorioak ditu komunikazioetan ez ezik, telelana egiteko aukeretan edo proiektu berriak abian jartzean ere, baita adinekoek edo genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek telelaguntza mugikorra eskuratzean ere. Gainera, inguruabar batzuek areagotu egiten dute gizarte-desabantaila, hala nola desgaitasuna, atzerritarra izatea, sexu-aniztasuna edo langabezia.

Espainia hustuaren testuinguruko gizarte-kalteberatasuna txostena eginez, "giltzarriak bilatzen ditugu gure esku-hartzea birbideratzeko, gure premiak hautemateko, gizartea Espainia Hustuaren errealitateaz sentsibilizatzeko, aliantzak eraikitzeko eta landa-eremu horietan dauden eta bertan jarduten duten erakundeekin eta entitateekin batera lan egiteko". Proposamenak egiten ditugu arlo guztietan (enplegua, hezkuntza, osasuna, fiskalitatea, ikerketa, etxebizitza, energia-pobrezia, nekazaritza eta abeltzaintza, toki-garapena, gizarte-babesa, garraioa, gazteria, kultura, herritarren partaidetza, eta abar) Gurutze Gorriak, gizarte zibilaren erakunde gisa, erronka komun honetarako erantzunak bilatzeko duen ahalmena errentagarri bihurtu nahi dugulako", bukatu du Javier Senent-ek.

Erronka horri Espainia hustuko protagonistek, bertako biztanleek, langileek eta boluntarioek jarri diote aurpegia eta ahotsa Gurutze Gorriak ekoiztutako Espainia Hustuaren Ahotsak bideoan. Bideo horrekin eman zitzaion hasiera mahai-inguruari eta bertan ikusten dira, lehen pertsonan, herri horiek egunerokotasunean aurre egin behar izaten dieten ezbeharretako asko.

Eztabaidaren txandan, Juana Lópezek, Despopulazioaren aurkako Politiken zuzendari nagusiak, nabarmendu zuenez, “azterlana une egokian iritsi da, Espainia hustuan aukerak sortzearekin zerikusia duen orori buruz hitz egiteko garaia da, eta, orain, administrazio publikoak, herritarrak eta komunikabideak elkarrekin daude erronka baten aurrean, erronka demografikoaren aurrean, alegia. Herrialde gisa, kolektibo kaltebera horiei eskaini diezazkiekegun Zerbitzu Publikoetan definitu behar dugu.

Era berean, Udalerrietako eta Probintzietako Espainiako Federazioaren idazkari nagusi Carlos Daniel Casaresek, azpimarratu zuen “errespetatu egin behar dela pertsonen bizi nahi duten lekuan bizitzea, baina ahalik eta baldintza hoberenetan. Orain da garaia eta bi ildotan lan egin behar da: kobernanta sustatzea, hori guztion kontua da; eta gizarte-erakundeek parte hartzea, Gurutze Gorria, adibidez, beti pertsona kalteberenen ondoan dagoena, landa-eremuetan halako pertsona asko baitaude”.

Eremu pribatutik, Juan Manuel Serrano Correosen presidentek honako honetan jarri zuen arreta: “mota honetako erronka baten aurrean inoiz ez da berandu, baina, denbora gehiegi igarotzen utzi dugu agian. Horregatik, iritsi da lanean hasteko eta ingurune horietan bizi diren pertsona guztientzako guztiak izateko garaia; adibidez, Correosek orain dela bi urte hasi zuen ekimena: gure banaketa-sare guztia biztanleriaren esku jartzea: Espainia osora iristen diren 30.000 pertsona eta 15.000 ibilgailu”.

Azkenik, Marta Solanok moderatutako eztabaida aberasgarria egin aurretik, Carmen Morenés Giles Telefónica Fundazioaren zuzendari nagusiak digitalizazioak duen garrantzia azpimarratu du: “Telefónica Fundazioak oso ondo daki zer esan nahi duen digitalizazioak Espainia hustuan, eta, horren aurrean, konpromiso garrantzitsua dugu herrialde osoari, txoko guztietako herritar guztiei estaldura emateko. Espero dugu lankidetzaren publiko-pribatuari esker asmo hori errealitate bihurtzea 2024an. Digitalizazioa, azpiegiturak, zerbitzuak, prestakuntza eta orientazioa norberak erabakitzeko non bizi nahi duen”.